


Konkistatzaileak zergatik ez ziren gaixotu?




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Guanahani uhartea (Bahamak), 1492. Kolonen espedizioak "Mundu Berria" lehenengoz zapaldu zuenean, gero Amerika esango zitzaion kontinentean 60 milioi pertsona bizi ziren, gutxi gorabehera. Handik ehun urtera sei milioi ingurukoa zen biztanleria. Populazioak hain nabarmen behera egitea eragin zuten arma isilak baztanga, elgorria, izurri bubonikoa, difteria, tifusa... izan ziren. Bertakoek ez zuten ordura arte gaixotasun horiekin kontakturik izan eta, beraz, ez zuten horien aurkako immunitaterik garatu. Baina, orduan, zergatik ez zen berdin gertatu europar konkistatzaileekin? Ez al zuten topatu beraientzat berria zen gaixotasun hilgarriak?

Erantzunaren bila atzera joan behar da, Neolitara. Iraultza Neolitikoa, komunitate biltzaile eta ehiztariak zirenak ekoizle bihurtu ziren, nekazaritzan eta abeltzaintzan jardunez. Nomadak ziren taldeak sedentarizatu egin ziren eta populazioak gora egin zuen. Dentsitate handiko giza talde egonkorak pagotxa ziren birus eta germenentzat. Non aukeratu zuten, ez zioten zertan ostalari bakarrari eutsi eta beste batzuen bila joateko aukera garatu zuten; gaixotasun infekziosoak askoz kutsakorragoak eta birulentoagoak ziren gizarte berrian.

Jakina, hori guztia Amerikan ere gertatu zen, baina Eurasian zoonosiak ozeanoaz bestaldean baino askoz eragin handiagoa izan zuen. Ugaztun han-



diak etxekotu zituzten, giza dentsitate handiari animalia dentsitatea erantsiz. Hala, gizakiontzat hilgarriak izan diren gaixotasun kutsakorak animalien gaixotasunetatik eboluzionatu zuten: baztanga, gripea, tuberkulosia, malaria, izurria, elgorria eta kolera dira gaixotasun horiek eta behi, txerri eta ardien gaixotasunetatik eboluzionatu zuten nagusiki.

Amerikan, duela 13.000 urteko azken glaziazioan, ugaztun handien espezie asko galdu ziren eta gerora, gizakiek lau animalia espezie besterik ez zituzten etxekotuko: indioilarra, llama, akuria eta ahatea; eta Eurasian

baino kopuru askoz txikiagoan gainera. Horregatik, konkistatzaile europarrak iritsi zirenean, gaixotasun eurasiar berrak zabaltzen zituzten, baina halakorik ez zuten zain.

Zer gertatuko zen Amerikan ere gaixotasun kutsakorak topatu izan baltuzte? Konkista eta kolonizazioa geldiaraziko ote zituen horrek? Afrikaren adibideari erreparatzen badiogu, ez. Afrika tropikalean ere baziren halako gaixotasunak, nagusiki sukar horia, kolonizatzaile europarren eragin handia izan zutenak. Horrek prozesua mantsotzea eragin zuen gehienez ere, baina, dakigunez, ez zuen geldiarazi. ●



SABARVR

Pompeia txiki bat Veronan

Veronako (Italia) Astra zinema-areto zaharrean berritze lanak egiten ari zirela, II. mendeko erromatar domus baten arrastoak topatu dituzte. Luxuzko bizitoki pribatua zela diote arkeologoek, zementuzko zoruan berokuntza sistema zeukana eta freskoz apaindua. Eraikineren estalkia egurrezkoa zen eta sute ba-

tean suntsituta geratu zela ondorioztatu dute ikerlariek. Vesubioren errautsek Pompeiako arrastoak gorde zituzten moduan, Veronako etxe horren hormetako margolanak sutearen errautsetan bikain kontserbatu dira. Horregatik diote arduradunek "Pompeia txiki bat" aurkitu dutela. ●